



# ALEA

arabako aldizkaria

## BETIKO OGIBIDEA ARAUTZEKO ETA ZABALTZEKO BEHARRA



Oihaneder  
Euskararen Etxean

# 1000 Belaorri iKUS ZikLoa

entzunezkoen  
[2018]

Azaroak 21  
19:00

## EUSKARALDIA

Hizkuntza ohituretan  
eragin dutenen  
esperientziak

Mahai-ingurua: Nola biziko  
dugu Euskaraldia?

Antolatzaileak

Babeslea

Laguntzaileak

GEU  
ELKARTEA

OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA

Aparantzen  
De Wipolla-Garreta  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

EUSKO JAKINARITZA  
GORTERAKO BIKO

ALEA  
BARRIOA

Diario

euskaltzateen  
topagunea



# ALEA 172

2018-11-16 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

MIRIAN BITERI

Beirateak lantzeko tailerra Gasteizen dauka Mikel Delikak.

## Aurkibidea

- 4 **Sakonean:** Mikel Delika, argiarekin, koloreekin eta testurekin 'jolasten' duen beiragilea.
- 8 **Protagonista:** Jon Maya dantzaria.
- 12 **Iritzia:** 'Zalantza-malantzan', Blanca Urgell.
- 14 **Gutuna:** Iñaki Uriarte arkitektoa, Araia pilotalekuaren desitxuratzeari buruz.
- 16 **Sarean:** #Segregazioa
- 17 **Iruditan:** Gasteizko Bendaña jauregiaren ibilbidea, argazkien bidez.
- 18 **Ekonomia:** Botikagintzaren arloko laborategi berria.
- 20 **Gizartea:** Ur partzuergo bakarra sortzeko plana du Diputazioak.
- 22 **Esanak eta datuak.**
- 23 **Laburrak.**
- 24 **Musika:** Beñat Goitia, Montauk taldeko kidea: "Iluntasun eta geruzetara jo dugu lan berri honetan".
- 26 **Nutrizioa:** 'Gozoki bat eskuan', Nagore Enciso.
- 27 **Diseinua:** 'Zuntza', Maddalen Agirre Loinaz.
- 28 **Gure Bazterrak:** Baranbio.
- 30 **Agenda.**

### Bultzatzaileak



# berria goiena

### Laguntzaileak



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

*Araba da  
erronka*



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

#### Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

#### Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna

#### Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estiburu Ugarte

Juanma Gallego

#### Komertziala

Erlantz Andia

#### Inprenta

GERTU inprimategia

**Tirada:** 2.100 ale

#### EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

#### PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

#### HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

**Lege Gordailua:** VI-32-2015

**ISSN:** 2386-8961

Asteko kolaboratzaileak: Blanca Urgell, Nagore Enciso eta Maddalen Agirre.

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA saillean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

# Argi izpiak koloreztatzeko ofizio zaharra

Mikel Delikak 35 urte daramatza argiarekin, koloreekin eta testurekin 'jolasten'. Beirateak diseinatzen, sortzen eta zaharbertzen ditu Gasteizko alde zaharrean duen tailerrean; "ezezaguna" den eta "arautu gabe" dagoen ogibide bat ezagutarazteko ahalegin berezia ere egiten du, hitzaldiak eta bisitak eskainiz.

Testua: **Mirian Biteri.**  
Argazkiak: **Mikel Delika eta Mirian Biteri.**

**G**oizean goizetik dago Mikel Delika Gasteizko alde zaharreko Txikita kalean duen tailerrean. Esku artean dituen enkargu garrantzitsuak aurrera atera behar ditu eta horiek guztiek denbora eskatzen dute; tartean, Bilboko eraikin bat berritu eta bertan egingo den hotel berri baterako beirateak konpontzen dabil orain, eta Nafarroako Bertizko Jauregian dagoen kapera kanpoko beirate modernistei azken ukituak ematea ere falta zaio. Pasa den urtean, bertako gobernuak deitutako lehiaketa irabazi zuen, eta aurreikuspenen arabera, datorren urtean jarriko dituzte berrituta jatorrizko tokian. Ez du, hortaz, denbora galtzerik.

Beirateen arloan jakintsua da Mikel Delika gasteiztarra; ibilbide luzeak erakutsitako esperientziak eta arte horrekiko duen maitasunak eraginda. 1983. urtean hasi zen horretan, "kasualitatez". Margotzea zuen gustuko eta bere asmoa delineaioa ikastea zen, baina, hainbat oztopo tarteko, elektrizitateko ikasketak egin zituen. Soldadutzatik itzultzean, Rotulos Bastidan hasi zen lan egiten, lehengusuarekin batera, eta bertan egin zituen lehen beirateak, modu autodidaktan. Emaztea ingelesa du Delikak, beirateak edonon aurki daitezkeen lurraldekoa. Berak bultzatu zuen tailerra bere kabuz jartzera.

Aurretik, baina, formazio gehiago behar zuela ikusi eta Peter Young beiragile irlandarra gonbidatu zuen Gasteizera. Berarekin artea ikasi eta negozio berria jarri zuen martxan; garai hartan, Gasteizen zegoen beirategile bakarra eta erretiratzear zegoen

Gasteizko alde zaharrean du tailerra  
Delikak. MIRIAN BITERI





Mikel Delika, enkargu bati azken ukituak ematen. MIKEL DELIKA

Anastasio Lopez Riañoren material gehiena erosituta. Azken urteotan, Gasteizen bi beiragile baino ez dira izan: Delika bera eta Hedegile kalean zegoen Iñaxio Zarketa; dagoeneko erretiratuta dago azken hau ere.

### **Formazioa, etengabea**

Negozioa martxan izanda ere, inoiz ez du formazioa alde batera utzi eta Alemanian, Espainian eta Herrialde Katalanetan ibili da bere ezagutza zabaltzen. Bartzelona aldean, beirateen zaharberritzearen inguruan egindako ikastaro batean ezagutu zuen Fernando Cortes; ikastaroaren irakaslea zen bera. Ordutik, askotan egin dute elkarrekin lan: tartean, 1895. urtean egindako Gasteizko Andre Mari Zuriaren Arrosarioaren segizioko farolen kontserbazio eta esku-hartzerako jarraibideei buruzko azterketan eta Santa Maria Katedraleko Beirateen Azterketa eta Egitasmo Zuzendarian.

Beirate historikoak zaharberritzearekin batera, berriak ere egiten ditu gasteiztarrak. Azken hauetan, bezeroarekin berba egin ostean, lekua bisitatzen du, eta bertako argia, testuingurua,

arkitektura, funtzioa eta bestelako ezaugarriak sakon aztertu ondoren, zirriborroa egiten du. Azkenik, erabili beharreko teknika aukeratzen du.

### **Beirate originalak mantentzea**

Beirate historikoen kasuan, teknika eta material berdinak erabiltzen dira, baina, kasu horretan, mantentze eta berritzerako jarraibideak hartzen dira kontuan. Gainera, gremio bereko beste aditu batzuekin batera egiten da lan proiektu horietan, beste profesionalen gainbegiradapean. Delikaren esanetan, gaur egungo erroka da beirate originalak mantentzea eta belaunaldiz belaunaldi datozenei azaltzea; ez beirate zaharrak berriengatik ordezkatzeta.

Beirate berriak zein historikoen gaineko proiektuetan esku-hartze osoaren prozesua jasotzen da; hala, lanean dauden bitartean jarraitu beharreko pausuak zein amaitu ostean beirateen

mantenurako hartu beharreko neurriak biltzen dira memoria baten modura.

### **Arautzearen beharra**

Gaur egun, beirateen arteak duen gabeziez hitz egin du Delikak. Batetik, ogibidea arautzearen garrantziaz ohartarazi du: "Europar behar bezala dago araututa; Arte Ederrak ikasi behar dira, eta esandako espezialitatea aukeratu. Baina Espainian ez dago argi zer den, artea edo artisautza. Egoerari bueltan emateko ahaleginetan gabilta: beirategileen elkarte bat sortzeko urratsak ematen hasi gara arautu dezaten eskatzeko".

Horrekin batera, nabarmendu du ezinbestekoa dela administrazioen kontzientziarioa: "Ez dago eremu horren inongo ezagutzarik. Babestu gabe dagoen artea da gurea". Adibide gisa, aipatu du gaur egun, oraindik ere, ez dagoela beirateen inbentariorik. Horren harira, azaldu du aukera hori aztertzen ari direla Nafarroako Gobernuarekin eta baita Arabako Diputazioarekin ere: "Kontuan izan behar da Micaela Portillak egindako Gasteizko elizbarrutiko monumentuen katalogoan ez dagoela beirateen gaineko informaziorik; funtsezkoa da guzti hori jasotzea eta bereziki aztertzea. Ziur sorpresak agertuko direla". Aipatu du Araba mailan erraza dela inbentarioa egitea, gehiena "kontrolpean" dutelako.

### **XIX. eta XX. mendekoak**

Azaldu du lurraldeko beirate gehienak XIX. mende bukaera eta XX. mende hasiera bitartekoak direla, garai bakoitzeko "moden" arabera, galtzen joan direlako. Gaur egun, katedral zaharreko Santiago kaperan daude beirate zaharrenak; 1723. urtekoak dira. Jakinekua da eraikin berean garai hartako beirate gehiago zeudela, baina pasa den mendeko 60. hamarkadan egindako berritze lanetan kendu zituzten. Horrez gain, Arrosarioaren prozesioko farolen bilduma nabarmendu du: "Sekulakoa da; bakarra. Gasteiztar askok ez dute ezagutzen, eta merezi du museo bisitatzea. Garrantzia gehiago eman beharko genioke bilduma horri".

Dibulgazio lan horretan, hitzaldiak ematen ditu gasteiztarrek; pasa den urriaren 30ean, esaterako, Comillaseko seminario nagusiko elizako beirate modernistetan egindako lanaz hitz egin zuen, Gasteizen. Ez da puntuala; dagoeneko beste mintzaldi bat du eta itxita Arabako Diputazioarekin.

Bisita gidatuak berreskuratzearen ideia ere badu buruan; orain arte hiruzpalau bider egin ditu. Besteak beste, katedral zaharreko kriptan eta girolan zein Santiagoko kaperan dauden beirateak, prozesioko farolen museo eta San Pedro elizakoak ikustean datza Delikak proposatzen du ibilaldia. ■■■



Gernikako Batzarretxeko sabai-leihoko beiratea zaharberritu du; 200 bat metro koadroko zabalera du. MIKEL DELIKA

**"ELKARTE BAT  
SORTZEKOTAN  
GABILTA ARAUTU  
DEZATEN ESKATZEKO"**

**"FUNTSEZKOA DA  
INBENTARIO BAT  
EGITEA. SORPRESAK  
AGERTUKO DIRA"**

MIKEL DELIKA

# "Urrats bat izan da 'Erritu' Kukairentzat, inflexio-puntu bat"

JON MAYA DANTZARI ETA KOREOGRAFOA

Norberaren barne bidaian hasi eta komunitatera egokitzeko prozesuaz hausnarketa egin du Kukai dantza taldeak 'Erritu' lan berrian. Euskal dantza tradizionala oinarri, beste jauzi bat egin dute dantza garaikidean arakatuta; "bidaia sakonena" taldeko buru Jon Mayak azaldu moduan.

Testua: **Anakoz Amenabar**. Argazkiak: **Erlantz Anda**.

**S**ei urterekin egin zituen lehendabiziko saioak euskal dantzeekin, eta, geroztik, hamaika plaza egin eta gero, tradizioa oinarri, dantza garaikidean bilatu ditu unibertso berriak Jon Mayak (Errenteria, 1977), Kukai taldearen hauspoarekin. 'Oskara' lan

arrakastatsua taula gainean dutela, 'Erritu' aurkeztu berri dute; Sharon Fridman koreografoarekin batera landutako dantza eta musika errituala da azkenekoa. Bidaia horren parte izan dira ikusleak, eta txalo zaparrada jaso dute Gasteizko Principal antzokian.

**Lehendabiziko aurkezpenak egin dituzue, besteak beste, Gasteizen. Nolako sentsazioa utzi dizue?**

Oso pozik gaude, eta erditze ondorengo gorputzarekin. Hamar egunetan sei emanaldi izan dira, muntatu eta desmuntatu, egokitzapenak, ardurak... Nekatuta, alde batetik. Eta oso pozik, beste alde batetik, 4.500 bat lagun izan ditugulako ikuskizunaren aurkezpenean. Jendearekin *feedback*-a oso ona izan da; antzokian lehenengo erantzuna polita, eta gerora ere arrastoa utzi du, ukituta ala hunkituta utzi ditu asko. Ikuskizun horrek hori dauka, bere gordintasunean, oso


sakonetik egindako lana dela, eta sakonera heltzen dela.

**"Barnealdere eta ingurunera" inoiz ez bezala gerturatu zaituen prozesua izan dela aipatu duzu Twitterren.**

Interpreteek prozesuan euren barne-barneko sentimenduetatik lan egin dute, eta hortik abiatuta egin dugu lan. Beraientzat prozesua bera eta emanaldi bakoitza bidaia potente bat izan da, non pasatu diren oso leku emozionaletatik, eta, teknikatik haratago, beraien partetik asko eman duten. Inguruan gaudenok ere, oholtzara igotzen ez garenok ere, asko eman dugu prozesu honetan eta hori guztia oholtzan azaleratzen dela eta jendearengana heltzen dela ikustea poztekoa da. **Sharon Fridman koreografoaren lana lagungarri izan da behar horretan?**

Bai, faktore desberdinak izan dira. Alde batetik, dantzakera eta dantza teknika aldetik, Sharonen teknika oso lagungarri izan da, eta koreografia ulertzeko, marrazteko eta konposatzeko daukan moduak eragina izan du. Alderdi espirituala lantzen, bestalde, Antonio Ramirez-Stabivo aipatu nahiko nuke dramaturgia laguntzaile moduan. Oso inportantea izan da norberak bere egiatik eraikitzea; pertsonen eta egoeren muturreraino





joatea, eta bide horretan destilatzen diren detaileetatik eraikitzea narratiba eta koreografia. Uste dut urrats bat izan dela guretzat, inflexio puntu bat, eta, zalantzarik gabe, Sharonen eskua sumatzen da horretan.

### **Zein izan zen lan honetarako abiapuntua?**

Mugarri desberdinak daude. Erritualen gaia, espazio espiritualetan gaia aspalditik neraman buruan bueltaka, baina gakoa izan zen telefonoa hartu eta Sharonekin hizketan hastea. Harremana hasita, bakoitzaren unibertsoak ezagutzeko tailer bat egin genuen iaz, eta aste horretan atera ziren lehen zantzuak ikuskizunak hartuko zuen norabidearekin. Han erabaki zen pertsonaia baten bizitza zikloaz hitz egingo zela ikuskizunean, eta errepikapenaren eta esfortzuaren bidez iritsiko ginela lagun horren barrualdera. Hortik aurrera, elementuak enkajatzeko lana izan da.

### **Sormenak izan behar du mugarik?**

Uste dut ez dela mugarik. Egon behar du koherentzia bat gaiarekiko, ibilbidearekiko, une horretan azaldu nahi duzunarekiko... pertsonalki gustatzen zait ideia batekiko koherentzia bat mantentzea, eta ez soilik erabaki estetiko edo momentuko erabakien arabera. Baina sormen prozesu bat eta sormen lan bat beti abiatu behar da mugarik gabe.

### **Zer bilatzen du Kukaik?**

Uste dut orain dela 16 urte jaio gineneko ideia horri jarraipena ematen diola. Argi dago sorkuntza garaikide bat egiten ari dela euskal dantza eta euskal kultura tradizionala oinarri dituen; hori da iturria, hortik abiatu gara, baina

egia da, baita ere, urteek aurrera egin ahala garapen bat izan dela, eta garapen estetiko-estilistiko bat eta esperientzia bat dagoela, eta hori igartzen da.

### **Kontziente zarete urte hauetan apurtu dituzuen harresiez, estereotipoez...?**

Zaila da norbera kontziente izatea halako gauzez. Egiten duguna ez dugu ezer erakusteko egiten, edo inongo lekiorik emateko... Egiten duguna egiten dugu horretan sinisten dugulako. Batzuetan kurioa egiten zait nola orain oso modernotzat hartzen diren jarrerak duela 60 urte oso arruntak ziren; gizonak gizonekin dantzatzeko edo gona janzteko, esaterako. Badirudi gauza berritzaile bat egiten ari zarela, eta ez, orain dela mende erdi bat naturaltasun osoz egiten zen; horrek asko adierazten du gure gizarteak bizi duen momentuaz. Genero kontuetan, niri pertsonalki iruditzen zait horren gainetik egon behar dugula, eta, diskriminazio positiboa kasu askotan egin behar bada ere, pertsonak pertsona bezala tratatu behar ditugu, ezberdintasunen gainetik. Kasu honetan dantzariak hori dira: dantzariak, eta ez neska edo mutilak. Estetikoki ere hor, egia da, ahalegin bat egin dugu jantzien diseinuetan, norabide horretan lan egiteko.

### **Aurreiritziei aurre egin behar diezue oraindik?**

Bai. Adibide modura, aurrekoan kazetari batek galdetu zidan zenbat neska eta zenbat mutil dauden taldean. Berdintasun batean kokatu nahi dugu askotan, eta galdera horiekin genero ezberdintasuna bultzatzen ari gara. Nik ez dizut esango zenbat mutil eta neska dauden, zenbat



Dantza tailer bat eskaini zuen Mayak, joan den astean, Gasteizko Ibaiondo gizarte etxean.



Jon Maya dantzaria, Ibaiondo gizarte etxean.

**"BADIRUDI GAUZA BERRITZAILE BAT EGITEN ARI ZARELA, ETA EZ, ORAIN DELA MENDE ERDI EGITEN ZEN"**

**"TEKNIKATIK HARAGO, DANTZARI BAKOITZAK ASKO EMAN DU IKUSKIZUN HONETAN"**

**"KURIOSOA DA ZENBAT JENDE BIZI DEN KULTURATIK, ETA HORIETAKO ZENBAT DIREN SORTZAILEAK"**

dantzari dauden eta euren izen-abizenak emango dizkizut. Batzuetan iruditzen zait terminologian eta moduetan asko dugula hobetzeko, eta berdintasuna ere etorriko da genero kontuak gainditzen ditugunean.

**"Kulturaren aldeko apustuek horrelako emaitzak dakartzate" idatzi zenuen sare sozialetan 'Erritu' aurkeztu berri. Apusturik bada?**

Julen Mendoza Errenteriako alkateari esan nion, ikuskizunaren ostean hunkituta txio bat idatzi ostean. Errenteriakoa naiz, Kukai ere bertako konpainia, sorreratik gaude han, bertan formatu gara, eta momentu honetan Kukai konpainia egoiliarra da eta funtzio bat betetzen du. Garbi dago Errenteriako Udalak apustu bat egin duela kulturarengatik, horren adibide bi konpainia erresidente izatea da: Kukai eta Dejabu. Uste dut biak emaitza interesgarriak ematen ari garela, eta zalantzarik ez dago apustua egiten denean, baliabideak jartzen direnean, lanerako kontestuak jartzen direnean emaitzak etorri egiten direla.

**Inguruari begiratuta, salbuespena da?**

Betiere zerekin alderatzen den. Zalantzarik gabe, eremu publiko eta pribatuaren arteko lankidetzan oraindik aurrerapausoak eman daitezke, eta herri honetan dauden kultur ekipamendu, dinamika eta baliabideen arteko harremana estutuko balitz, emaitza hobeak lirateke. Ebrotik behera, Euskal Herrira begiratzen dutenean zortekotzat gaituzte, eta neurri batean egia da, baina uste dut gure parametroak Europari begira jarri behar ditugula, langabezian edo beste alor batzuetan egiten dugun moduan; arte eszenikoen esparrua oso prekariora da eta alanbre batean bizi gara. Bide luzea dago egiteko, esate baterako, hezkuntza eta sorkuntza munduak bateratuta, eta gizartearen ohituretan ere eraginez; ezin da bakarrrik kultura aisi bezala irudikatu eta bizi. Eta zer esanik ez arte eszenikoetako langileek dituzten baldintzen inguruan; kurioa da askotan zenbat jende bizi den kultur esparrutik eta horietako zenbat diren sortzaileak... harrিতuta geratuko ginateke.

**"Izan dantzari, bizi dantzari. Dantzatzen duen herria ez da inoiz hilko. Gora herria!", Max sarietako eskertza ondo gogoan geratu zaigu.**

Sekulako egun baten osteko eskertza izan zen. Negu Gorriak zalea izan naiz, eta mezu hori eraman nahi izan nuen taula gainera. Gure hizkuntza eta gure kultura transmititzen jakin izan duten haiei nahi izan nien zuzendu saria. Antolatu egiten den herriak, lantaldean ari denak egingo du aurrera. ■■■

# Zalantza-malantzan



**BLANCA URGELL**  
FILOLOGOA

**G**ure mundu honetan zalantza ez da aintzat hartzen. Asertiboa estimatzen da, iritzia sendo adierazten duena, adorez erantzuten duena, tertuliakide azkar zorrotza, ozen mintzo dena, ez dar-dar, ez durduza ez dabilena. Di-da erabakitzen duena. Alfa arra edo emea.

Ni, ordea, zalantza-malantzan ibili ohi diren horietako bat naiz. Entzun eta (ia) dena ondo ematen dit hasieran; gero pentsatu eta duda-mudan hasten naiz: horrela ote, ala bestela? Alde onak eta alde txarrak ikusten ditut, itxuraz zein baino zein zentzuzkoagoak. Batzuetan leon-kastillo botatzekotan nago, baina, badakizue: maiz ez dago aukerarik, berehala bestek hartzen baitute aurrea.

Euskal arimakideen bila hasi eta Pirmin Iraolagoitia pasiotarrarekin egin dut topo, *Descartes*en *zalantza-bidea* argitaratu baitzuen Jakin aldizkarian, ni jaio eta urtebetetxo bat lehenago —antzinategian, beraz—. Kartesiarra naizela esatera nihoan, agian baita iraolagoitiarra ere, baina... bai zera: Iraolagoitia jaunak garbi daki egia zein den. Descartesek ez, ez hasieran behintzat, baina berak bai: egia Egia dela esan genezake. Egia errebelatua, egia berdaderoa, zalantzaren itxurak bakarrik onartzen dituen. Dena dela, funtsean, asertiboa da finean Descartes bera ere: "Pentsatzen dut; orduan banaiz" baieztatu zuen (pasiotarraren itzulpen ederraz), eta horrekin dena esanda utzi zuen. Kontxo: neuk, Descartesek ez bezala, pentsatuago eta sarritan duda gehiago.

Herri txarrean jaio naiz zalantzi izateko. Beti zirt edo zart egiteko egokieran bizi gara. Hemen zaude, ala han? Gurekin ala gure kontra? Zuria zara, ala beltza? Batek deitu, besteak tira. Ai ene, Mari Anton: ezin geldirik egon. Eta ni, artean, Iraolagoitiaren "egiaren leiketazuna"-z —izenaz ala izanaz?— maitemindu ere egin naiz bere lantxo irakurri bitartean. Ez dut erremediorik.

Izan ere, zalantza zintzo, benetako eta handiak izaten ditut hedabideetan egunero agertzen diren gai (ia) guztiez. Saillkagaitza naiz? Partikula kuantikoak bezala harrapagaitza? Ala nagia, zabarra eta axolagabea, besterik gabe? Hausnarketaren bideari heldurik pentsalari handia, ia-ia Lao Tse bat izatera helduko naiz denborarekin, ala izoztuta geldituko naiz neure ergeltasun itxurosoan?

Nork daki, jaun-andreok. Ezer ez baitakit nik, ezer ez dakidala baizik. ■■■

**HERRI TXARREAN JAI  
NAIZ ZALANTZATI  
IZATEKO. BETI ZIRT EDO  
ZART EGITEKO  
EGOKIERAN BIZI GARA**

# KU\_BERNAOLA FESTIVAL 2018



## URRIA

27 AKUSMA (Jesús Guridi Musika Kontserbatorioa, 19:30)

## AZAROA

1 ESPAI SONOR (Jesús Guridi MK, 19:30)

3 BERTRAND CHAVARRÍA-ALDRETE (Arte Ederren Museo, 12:30)

8 SIRIUS & FRIENDS (Jesús Guridi MK, 20:30)

10 DRUMMING (Jesús Guridi MK, 19:30)

15 DZAST AHOTSAK (Jesús Guridi MK, 20:30)

16 ANNA MARGULES (Artium, Ekioldeko Goi Aretoa, 19:30)

17 MÓNICA VALENCIANO (Artium, EGA, 19:30)

18 DZAST AHOTSAK (Araio, San Pedro Eliza, 13:30)

18 MÓNICA VALENCIANO & CO (Artium, EGA, 19:30)

22 JEFF KAISER (Jesús Guridi MK, 20:30)

24 ENSEMBLE SINKRO (Jesús Guridi MK, 19:30)

29 ALEXANDRA GREFFIN-KLEIN (Jesús Guridi MK, 20:30)

## ABENDUA

1 ALEXANDRA GREFFIN-KLEIN & ALEXIS DESCHARMES (Jesús Guridi MK, 19:30)

3 GURIDI GARAIKIDEA (Jesús Guridi MK, 19:30)

[www.bernaolafestival.com](http://www.bernaolafestival.com)



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteiz  
Ustele



fundación sgae fundazioa



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteiz  
Ustele

## Araiako pilotalekuaren desitxuratzeari buruz

### IÑAKI URIARTE, ARKITEKTOA.

Hirigintzaren Nazioarteko eguna ospatu da azaroaren 8an, mundu osoko herritarren artean hirigintza-antolaketari buruzko kontzientziazioa sustatu nahian. Ardura hori bereziki garrantzitsua da tokian tokiko berezitasunak hobekien mantentzen eta adierazten dituzten lekuetan. Euskal Herriko herri askotan mantentzen da honen adierazle bikaina den tipologia mota bat: plaza-pilotalekuak.

Hirigunearen erdigunea da herriko plaza, eta askotariko konfigurazioak ditu, beti ere, zentzu sozial eta espazialik zabalenean ulertuta. Hauen artean, erreferentziatzeko elementua da pilotalekua. Batzuetan *frontis* bat besterik ez da: harrizko horma hutsa. Iparraldean ohikoa da tipologia hau; batzuetan exentua da, eliza edo eraikin bati lotuta besteetan. Ezkerreko horma batekin osatzen da askotan; eta, batzuetan, eskuinetik ere paramentu batek mugatzen du esparrua. Eraikin baten beheko espazio publikoa izan daiteke paramentua, edo eliza baten aterpea. Pilotalekuak leihoak eta ateak eduki ditzake, baina ere, batzuetan ezkerrealdean. Finean, askotariko aldaerak egon daitezke, baina ezaugarriak jatorrizkoena eta ezinbestekoa da, plaza guztiak bezala, zerua sabaitzat izatea.

Duela hainbat urtetik hona, baina, plaza-pilotaleku hauek desitxuratzen ari dira. Are kezkarriagoa izanik, batzuetan, pilotalekuak eraitsiak izaten ari dira.



Pilotalekua bere horretan mantendu behar dela babestu du Iñaki Uriartek. I. URIARTE

Hasiera batean, hormetako harlanduzko lan ederrak morteroz estaliak izan ziren; berdez margotu zituzten, telebistak pilota partidaren bat grabatzera joango zirelakoan, publizitatez prostituitutako txapelketa pilotaleku horien antzera – batzuetan, alkoholari buruzko publizitate lizunarekin, gainera-. Baina aurretik ere egina zuten desitxuratzetik larriena: plaza libreko pilotalekuen estaltzea. Argudioa zen barrutiari etekin gehiago ateratzea, euria izatekotan erabiltzeko. Salbuespenak salbuespen, gehienetan estalketa horien emaitzak oso kaxkarrak izan dira.

Kuriosoa bada ere, eguraldi berdina dago Iparraldean, baina bertako erdialdeko plazetan ez da halakorik egin erdigunetako plazetan; kultura kontua da.

"ERAIKIN ITXIA BILAKATZEN DA PILOTALEKUA, ONDARE INTERESA ETA ZENTZU HISTORIKOA GALDUTA"

"KONTU ETSIGARRIA BADA ERE, HARRIGARRIAGO DA EH BILDUKO UDALERRI BATEAN HAU GERTATZEA"

Joan den urriaren 3an Asparreneko Udalak iragarri du herriko erdigunean dagoen Iturbero pilotalekua estaltzeko asmoa duela. Antza, ez dituzte kontuan hartu estaltze horrek ekarriko lituzkeen ondorio guztiak.

1876. urteko pilotalekua da Asparrenekoa, Arabako pilotaleku txikien artean zaharrenetakoa. 1983an



zaharberritu zuten. Ezkerreko horma eta frontoia harrizkoak dira. Tamalez, ohiko kolore berdez margotuta daude hormak.

Eskuinean, zertxobait altuagoa den eraikin bat dago, planta baxukoa, eta estilo neoklasikoko beste bi eraikin ere alboan ditu. Zazpi arkupe daude, eta pilotalekuan jolasten ari direnean, edo aisiari lotutako beste ekitaldiren bat dagoenean, jendea arkupe horien babespean egon daiteke, Areson, Seguran, Zaldibian edota Ispasterren dauden pilotalekuetan egiten den modu berean.

Euskal Herriko toki askotan estali dira pilotalekuak. Eraldizko horiek —bereziki, herrietako erdialdean dauden pilotalekuen kasuan— akats larria suposatzen dute, baina badirudi akats horren ondorioak onartuzat ematen ditugula.

Lehen ondorioa da altuaren poderioz gehiegizko bolumentria inbaditzailea sortzen dela, pilotalekuaren geometria xehea bertan behera utzita. Hormek eta zoruak osatzen duten oinarritzko triodoa desaginda, jatorritzko antolaketaren zentzua erabat galtzen da. Modu honetan, eraikin itxia bilakatzen da, ondare interesik gabekoa, presentzia zein zentzu historikoa eta formala galduta. Are gehiago, interes funtzionala ere galtzen du, urtaroaren arabera, egunak ilunera jotzen duenean, harrien edertasunaren pertzepzio kromatikoa galtzen da eta.

Sonoritatea ere aldatzen da: pilota jokoan soinu arinak direnak anplifikatutako kolpe bilakatzen dira estalitako esparruan, eta hitz intimoak ozenago ateratzen dira, gainera.

Modu berean, eskala nahasten du, eta inguruneke eraikinen nortasuna galtzen da, koherentzia urbanistikoaren eta herriko paisaiaren kalterako.

Justifikazio bakarra da jolasteko eta beste hainbat jarduera egiteko areto bilakatzen dela gauean edo eguraldi eskasa egiten duenean. Baina plaza modura, tipologikoki eta etnografikoki duen balioa ia beti kaltetzen da, testuingururik gabeko kirol eraikin bilakatuta.

Agerikoa da Araian ez direla aztertu Iturbero pilotalekuari lotuta doazen arkitektura, hirigintza eta ingurumen balioak. Done Jakue bideko parte izanik, udalerririk berezko interes kulturala du. Besteak beste, San Pedroko eliza, iturri neoklasikoa, herriko enparantza eta udaletxea daude gertu: balio kultural handiko elementu hauek ondare multzoa

izendatzea merezi dute, eta, hain zuzen, eskari hori egingo da datozen egunotan.

Duela hainbat urte Elorrioren gauza bera egin nahi izan zuten, baina Niko Moreno alkatearekin hitz egin nuen, lehiaketa hasita bazegoen ere. Zorionez, kasu horretan, lehiaketa esleitu gabe geratu zen. Oraingoan ere harrigarriagoa da kontua, 2017ko martxoaren 18an, Udalak gonbidatuta eta bertako alkatea bertan zegoela, *Plaza-pilotalekua, euskal agora* izeneko hitzaldia eman nuelako herrian.

Bestetik, lehiaketaren oinarriak onartezinak dira, kulturalki zein profesionalki. Proposamen arkitektonikoa baino, proposamen ekonomikoa da guztiz lehenetsi dutena. Erabakirik zentzudunena litzateke, beraz, prozesua bertan behera uztea.

XXI. mendean hirigintzan eta arkitekturatan hain errotuta dauden elementu berezi hauen alde borrokatu behar izatea etsigarria bada ere, are harrigarriagoa da hau gertatzea EH Bilduk gidatutako udalerririk batean. Alderdiari herrialdearen zentzu identitarioaren alde egotea suposatzen zaio. Eta pilotaleku irekia da, hain zuzen, euskal ondare kulturalaren ikur nagusienetakoa: bilgunez betetako arkitektura hutsa da, hain zuzen.

*(Erredakzioan euskaratua eta moldatua).*

**BIDALI ZURE GUTUNA:**  
erredakzioa@alea.eus

ALEAk eskubidea du gutuna laburtzeko eta alea.eus-en argitaratzeko.

## SAREAN

@ESTITXUUGARTE

## #Segregazioa

**H**ezkuntza sailak atzerriko ikasleen eskolatzeari buruz kaleratu duen ikerketak erreakzio ugari eragin ditu hezkuntza alorreko eragileen artean. Halaber, eskola segregazioaren harira erreportaje berezia argitaratu du Berriak, eta Garak *Etorkinak eta euskara gure eskoletan* Josean Buenoren iritzi artikulua kaleratu du; sare sozialetan ere oihartzun handia izaten ari da eskola segregazioaren inguruko eztabaida. ■■■



**GURASOEUS**  
@gurasocom

Azkeneko hamabost urteetan hainbat aldiz azaleratu den arazoa izan da eskola segregazioa, alegia, gure hezkuntza sisteman nagusiki jatorriarekin eta klase sozialarekin lotutako eskolatzeko desoreka.



**STEILAS SINDIKATUA**  
@STEILAS\_

Hezkuntza Sailak egindako ikerketa ez da nahikoa segregazioaren arazoiari aurre egiteko. Diagnostikoa azalekoa da eta neurriak ez dira nahikoak. Ez da hezkuntza publikoaren arazoa.



**NAGOMEDEAK**  
@NagoMedeak

Ukaezina, segregazioa ez da hizkuntza kontua, klase kontua baizik.



**BERRIA.EUS**  
@berria

Amelia Barquin: "Bai, gure gizartean lehenetsunekoak diren erronka sozialari, kulturalari eta linguistikoari erantzuna ematen dieten ikastetxeak estigmatizatuta daude, ikastetxe okerragoak balira bezala".



**IKOITZ ARRESE OTEGI**  
@ik0itz

Segregazioa, EAEko hezkuntza sistemaren porrotaren beste adierazle bat da. Egoera larria da. Herri gisa ekiteko garaia dugu!



**GOIAN ALDE ZAHARRA**  
@goian\_gasteiz

Aniztasun soziala dela eta, bidegurutzean gaude.



---

**IRUDITAN**

---



## **Bendaña jauregiko istorioak, argazkietan**

Gasteizko Aiztogile kaleko Bendaña jauregian eraikin beraren azken 120 urteotako irudiak jasotzen dituen erakusketa dago egunotan ikusgai. Arrieta-Maetzutarren jauregia, XIX. mendetik Bendaña jauregia moduan ezagutuko dena, XVI. mendean eraiki zuten. Agiritegietan ikuspegi ezberdinetatik hartutako argazki asko gordetzen dira; horietako batzuk hartu eta erakusketa prestatu dute, bisitariak mendeetan zehar jauregian egondako pertsona eta gertaeretara hurbiltzeko asmoz. Argazki zaharrenak XX. mende hasierakoak dira; goikoa, esaterako, 1915. urtean aterata dago.

**Argazkia: Enrique Guinea-Gasteizko Pilar Arostegui Udal Artxiboa. ■■**



**Bidali zure  
argazkiak testu  
labur batekin:  
erredakzioa@alea.  
eus**



1,5 milioiko inbertsioa egin dute laborategi berria martxan jartzeko. JAVIER LARREA / TECNALIA

# Botikagintzaren aro berrirantz

Botikak garatzeko laborategi berria ireki dute Tecnaliak eta EHUK Arabako Teknologia Parkean. Laborategi berriari esker, Araba botikagintzaren arloan erreferente bilakatu nahi dute sustatzaileek.

## JUANMA GALLEGO GASTEIZ

Euskal Autonomia Erkidegoko botikagintzarako lehen 4.0 laborategia inauguratu berri dute astelehenean Arabako Teknologia Parkean. Basque Pharma Labs 4.0 izena eman diote Tecnalia eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko elkarlanaren emaitza den azpiegitura berriari. 1,5 milioi euroko inbertsioa egin dute 500 metro koadroko azalera duen laborategi honetan.

Bi erakundeek bi hamarkada daramatzate lanean botikagintzaren alorrean, eta azpiegitura berri honekin elkarlan horri bultzada bat eman nahi izan diotela azpimarratu du Tecnaliako Pharma Lab Services arloko arduradun Eider Larrartek.

"Laborategi honekin aro berri bat ireki nahi izan dugu elkarlan horretan". Orain arte egindako lanarekin pozik azaldu da Larrarte, baina sektoreak dituen erron-

ka berriei aurre egiteko beharra ere azpimarratu du.

Erronka horietako bat digitalizazioa da, adituaren esanetan. "Botikagintzan dagoen arazo orokorra da hori, digitalizazioari dagokionez sektorea atzerapauso bat atzerago ohi doalako". Botiken garapenak oso araudi zorrotzak dituzenez, zaila da hainbat prozedura garai berriei egokitzea. Baina horrekin bukatu nahi dute. "Besteak beste, bezeroekiko komunikazioan hobekuntzak egingo ditugu; adibidez, datu analitikoaren bidalketan". Baina lanean digitalizazioaren prozesua Tecnaliako laborategi guztiei eragingo diela azaldu du Larrartek.

## 4.0 botikagintza

Beste erronketako bat 4.0 industriari ekitea da, eta arlo horretan laborategi berria erreferente bilakatzea nahi dute. Izan ere, medikuntza pertsonalizatua gero eta gehiago garatzen ari den heinean,

funtsezkoa da horrekin batera medikuntza berri horren beharrak ase egingo dituzten botikak garatzea. Milioika pazienteri bideratutako botika bakar bat ekoiztu beharrean, norbanako bati edo talde zehatz bati bideratutako botika pertsonalizatuak garatzea da erronka. Horretako, botiken bioinprimaketa darabilte.

"Prozesu hori tratamendu osoa optimizatzeko erabili daiteke, adibidez, osagai aktibo desberdinak dosi bakar batean bilduta". Bestetik, eta osagai aktiboak oso garestiak diren kasuetan, botika-partida txikiagoak egin ditzakete. Ez da abantaila bakarra: iraungitze datek sortzen dituzten arazoei ere aterabide bat eman dakieke horrela. "Askotan botika ekoizle batek eskatu digu botika-sorta txikia egiteko, gure planta malguagoa delako. Eurei garestiegi

aterako litzaieke, tirada handiak egiteko prestatuta dituztelako euren laborategiak".

Hor ikusi dute, hain zuzen, merkatu-hobia: enpresa handi askok zerbitzuaren beharra dute. Gertukoaz harago, mundu osoko merkatua dute jomugan. "Espainiako eta Europako merkatuei ez ezik, AEBetako merkatuari begira gaude", azaldu du Larrartek. Norabide horretan, aurrerapauso garrantzitsua da laborategia. "AEBetako FDA Botika eta

## "BIOINPRIMAKETARI ESKER, TRATAMENDU OSOA OPTIMIZATZEKO AUKERA IZANGO DUGU"

EIDER LARRARTE, TECNALIA PHARMA LAB  
SERVICES

Elikagaien Administrazioaren ikuskaritza igarotzeko moduan gaude orain".

Etorkizunari begira, digitalizazioan sakondu eta botika pertsonalizatuaren bidea jarraitu nahi dutela dio Larrartek, genomika ahaztu barik. Baina profesional berriak sortzeko ardura ere gogora ekarri du. "EHUrekin dugun elkarlana indartuko dugu, baina beste arloak ere jorratuko ditugu; tartean, lanbide heziketako ikasleekin arituko gara".

Profesional horiek beharrezkoak izango dira buruan duten helburari iristeko: "Botikagintza erakarri nahi dugu Arabara, lurralde honek industria horretarako aukera bikainak eskaintzen dituelako". Logistikaren ikuspuntutik dauden abantailak jarri ditu adibidetzat; zehazki Araban dagoen *hub* logistikoa gako omen da.

# URKABUSTAIZEN ERE EUSKARAZ BIZITZERA GOAZ

AZAROAREN 23TIK  
ABENDUAREN 3RA... ETA  
GEHIAGO!

EUSKARALDIA



URKABUSTAIZKO UDALA

# Ur partzuergoak epel utzi ditu

Ur partzuergo bakarra sortzeko plana du Diputazioak; kontzejuek aspalditik kudeatu duten eskumena bereganatu eta ur hornidura zein saneamendua modu "profesionalean" egiteko. Errezeloa sortu du.

**E. UGARTE LZ. DE ARKAUTE** GASTEIZ  
Hoztasunaren eta errezeloaren artean garatzen ari da Araban ur partzuergo bat eta bakarra sortzeko Diputazioak bultzatu duen asmoa. Kontzejuek aspalditik kudeatzen duten herrietako ur hornidura eta saneamendua bereganatuko lituzke balizko partzuergoak, zerbitzuaren "kalitatea, segurtasuna eta eraginkortasuna" ziurtatzeko asmoarekin. Arabako Diputazioaren planak Eusko Jaurlaritzaren eta Uraren Euskal Agentziaren babesa du.

Halere, zerbitzuaren kalitatea eta eraginkortasuna dagoeneko ziurtatuta daudela uste dute hainbat kontzejuk, eta ez dute Araban ur partzuergo bakar baten beharrik ikusten. Egon daitezkeen arazoak "profesionaltasun" faltagatik baino, finantzazio eta baliabide eskasengatik sortzen direla uste dute. "Arabako Batzar Administratiboak uraren kudeaketa eredugarria egiten ari dira. Ez dago arazorik, ur-partzuergo bat eta bakarra sortzea ez da gure lehentasuna", esan du Joseba Terreros Arabako Kontzejuen Elkartearen lehendakariak.

Asmoa aspaldikoa bada ere, martxoan aurkeztu zuen Arabako Diputazioak ur partzuergo bat eta bakarra sortzeko proiektua, eta azpimarratu zuen borondatezkoa

izango dela atxikimendua. 2019. urtean erakunde berria martxan jartzea aurreikusten dute. Hala, martxo eta maiatza bitartean hainbat bilkura egin dituzte ur partzuergoaren berri emateko, eta ekainaren hasieran inkesta bat zabaldu du Diputazioaren Ingurumen sailak herrialdeko udalen eta batzar administratiboen artean proposamenaren inguruko iritzia jasotzeko.

## Interes gutxi

Inkesta horren emaitzek agerian utzi dute ur partzuergo sortzeko proposamenak epel utzi dituela interesatuak. Guztira 330 inkesta bidali zituen Diputazioaren Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak beste horrenbeste erakunderi (50 udal, 10 ur partzuergo eta 270 batzar administratibo), eta soilik 46k erantzun diote galdetegiari (%13,9).

Erantzun dutenen artean, erdiek baino gutxiagok (%47,8) uste dute uraren eskumena 350 erakunde-

ren eskuetan egotea negatiboa dela; gehienek usteetan positiboa da egungo kudeaketa (%21,8) edo ez da ona ez txarra (%23,9).

Dena dela, gehienek uste dute kontzejuen kudeaketa hobetu daitekeela (%82,6).

## Atxikimenduak

Galdetegiaren emaitzarekin batera, ur kudeaketaren inguruko proiektuak piztu duen interes eskasaren erakusle da ere ur partzuergora atxikitze borondatea erakutsi duten erakunde kopurua. Izan ere, Batzar Administratibo gutxi batzuk atxiki dira oraingoz Arabako ur partzuergora, 52 hain zuzen, eta soilik bost udal. Iraileko datuak dira horiek, Podemos taldeak Arabako Batzar Nagusietan egindako galdera bati erantzunez Diputazioaren Ingurumen sailak zabaldukoak.

Josean Galera Ingurumen diputatuak azaldu du ahalegin handia egiten ari direla Foru Aldunditik azken asteetan Arabako ur partzuergoan parte hartuko duten erakunde zentzuzkoak handitzeke, eta garrantzitsua dela eztabaida piztea herri guztietan. Hala, azaroa amaiera bitartean "atxikimendu zaparrada" espero dutela nabarmendu du.

Egitasmoa bultzatzen diharduen Uraren Euskal Agentziak ere behin baino gehiagotan azpimarratu du Arabako herrietan uraren hornidura hobetzeko ezinbestekoa dela erakunde bakar baten eskuetan egotea kudeaketa.

**350 ERAKUNDEK KUDEATZEN DUTE URAREN ZIKLOA ARABAN; BATIK BAT KONTZEJUAK DIRA**

**ORAINGOZ 52 KONTZEJU ETA BOST UDAL ATXIKI DIRA ARABAKO UR PARTZUERGORA**



Arabako herrietan etxeetako uraren horniduraz kontzejua eta udalak arduratzen dira. PHOT.OK

## Foru aurrekontuen negoziazio mahaian

Ur partzuergo bakarraren inguruko eztabaida pil-pilean egon da urte hasieratik Arabako Batzar Nagusietan, eta oposizio talde politikoek aldetik kritika ugari entzun behar izan du foru gobernua proiektuaren funtsa eta formagatik.

Ur hornidura eta saneamenduaren kudeaketaren inguruko hausnarketa plazaratu du EH Bilduk azken egunotan, aurrekontuen negoziazioaren harira. Hala, Arabako Foru Aldundiak bultzatu duen partzuergoaren "porrota" nabarmendu du koalizioak, eta Diputazioaren Ingurumen sailari atzera egiteko eta "benetako parte-

hartze prozesu bat martxan jartzeko" eskatu dizkio EH Bilduk. Tokiko erakundeekin batera egitasmo berri bat osatzea galdegin dio Diputazioari talde politikoak, "haiek baitira eskumena dutenak".

EH Bilduk gaineratu duenez, edozein motako proposamena egin baino lehen aztertu beharko da herrialdean kontzejuek eta udalek zer behar dituzten eta nola konpondu daitezkeen hobekien ur horniduraren eta saneamenduaren inguruan dauden arazoak. EH Bilduko ordezkari Kike Fernandez de Pinedok ohartarazi du Diputazioaren proposamenak

"nahasmena" eta "errefusa" sortu dituela herrietan.

PPk partzuergo bakarraren aldeko jarrera adierazi du aspaldi, baina hasieratik kritikatu du foru gobernua kontzejuei kudeaketa eredu zehatz bat "inposatu" nahi diela, eta negoziatu gabe abiatu dutela prozesua.

"Uraren kudeaketa profesionalizatu behar da, baina guztiak aintzat hartu behar dira", esan du Ana Morales PPko batzarkide taldeko bozeramaileak.

Podemos batzarkide taldeak ere tokiko erakundeen parte-hartze falta nabarmendu du, eta kontzejuei bidalitako inkesta ez dela nahikoa iritzi dio: "Inkesta bat ez da parte-hartze prozesu bat".

## ESANAK



**SAMANTHA GONZALEZ**  
SATSE SINDIKATUKO ORDEZKARIA

**"Erizain bakoitzak zenbat gaixo artatu behar duen legerik ez dugu; behar dugu"**



**ENEKO LLANOS**  
TRIATLETA

**"Ez dugu behar bezala baloratu Gasteizko Triatlloiak duen garrantzia"**



**OSCAR ROMERO**  
PILOTUA

**"2019ko Dakar rallyan lehenengo 25 pilotuen artean amaitzea espero dut"**

## ZENBAKITAN

### Euroak

**Arana klinika zaharra** 7,6 milioi euroan saldu nahi du Espainiako Gizarte Segurantzak. Babestu Gasteiz ekimenak eraikinaren etorkizunaren inguruan deitutako herri-galdeketa ospatu baino egun batzuk lehenago etorri da albistea. 50. hamarkadan zabaldu zuten Arana klinika eta bertan jaio ziren milaka arabar. 1977. urtean klinika itxi zuten, eta bertan kokatu zuten Diputazioak geriatrikoa, baina 2013. urtean itxi zuten. Inguruko auzo elkarteek Aldundiari eskatu diote geriatrikoa berriro zabaltzeko, baina "egiturazko arazoak" aipatu ditu administrazioak proposamenari uko egiteko. Hilaren 17an izango da galdeketa.

7,6

230

### Langileak

**Neguko Bidezaintza plana** abiatu du Arabako Foru Aldundiak. Neguko elurteei aurre egiteko plana 230 langileren esku egongo da. Elurra kentzeko 36 kamioi erabiliko dira eta 64 traktore. Neguko Bidezaintza Plana, azaroaren 15etik apirilaren 14era bitartean izango da jardunean. Dena den, garai horretatik kanpo izozteak edo elurteak gertatzen badira, Diputazioaren Bide Azpiegituren sailak berdin bermatuko du ibilgailuen zirkulazioa.

517

### Euroak

**517 milioi euroko** aurrekontu proiektua aurkeztu du Ramiro Gonzalez ahalduen nagusiak gidatzen duen foru gobernua 2019rako. Tokiko erakundeen finantzaketa eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakunderako aurrekontua dira aurrekontu proiektuaren onuradun nagusiak. 275 milioi euro zuzenduko dituzte tokiko erakundeen artean banatzeko (%10 gehiago), eta 212 milioi eurotik gora gizarte politikak garatzeko (%4,12 gehiago).

## Otsailean amaituko dituzte Villanañeko kolektoreko lanak

Villanañeko isuriak Espejoko araztegiarekin lotzeko lanak otsailean amaituko dituzte. 1,2 milioi euroko inbertsioa egin du Arabako Foru Aldundiak kolektoreak eta hodiak jartzeko. Hala, Espejoko araztegiak zerbitzua emango dio aurki Villanañe herriari, Angostoko kanpinari eta santutegiari; etorkizunean ere Uribarri Gaubearekin lotuko da.



Angostoko El Rabero zubiaren inguruan ari dira orain lanean. PHOT.OK



Kanpamendu bat, Grezian. ZAPOREAK

## Neguko arropa bilduko dute Grezian dauden errefuxiatuentzat

Greziako Lesbosetik eta Chiosetik kanpamenduetan dauden errefuxiatuentzat arropa biltzeko deia egin du Zaporeak ekimenak. Larunbatean, azaroaren 17an, egingo dute bilketa, 10:00etatik 15:00etara, Gasteizko Probintzia plazan. *Jantzi Negua* elkartasun kanpainaren barruan neguko arropa eta barruko arropa berria emateko eskatu du elkarteak.

## Medikuaren kontsultategia berritu dute Kripanen

Medikuaren kontsultategiaren isolamendua hobetzeko obrak egin dituzte Kripanen. Guztira, 10.000 euro inbertitu dituzte eraikina berritzeko. Halaber, herriko bideen konponketari ekingo dio aurki Udalak, behin beharrak aztertu ondoren. 19.000 euroko aurrekontua zuzenduko du Kripango Udalak urtero egiten dituzten konponketa hauek egiteko.

## Lan erregulazioaren epeak luzatu nahi ditu Tubos Reunidosek

Tubos Reunidos enpresako agintariek adierazi dute lan erregulazio espedientea ezarri nahi dutela 2018ko azarotik 2020ko otsailera arte. Antza, beharginek erdira murriztu beharko lukete lanaldia, edo %56ra, gehienez. Hala eta guztiz ere, negoziazioak ez dira amaitu. Lantegiak eskariak jasoko balitu, lanaldia handitze-ko parada izango luke.



Tubos Reunidos enpresak Amurrión duen lantegia. AIARALDEA.EUS

# "Iluntasun eta geruzetara jo dugu lan berri honetan"

BEÑAT GOITIA MONTAUK TALDEKO KIDEA

## ANAKOZ AMENABAR

2016. urtean Bilaketan lehendabiziko lana aurkeztu ostean, Geruzak izeneko bigarren diskoa kaleratu du Montauk talde gasteiztarrak; *ambient rock* estiloko zazpi kantaz osatutako lana da, Erraia diskoetxearen eskutik, Jimmy Jazz aretoan grabatutakoa. Beñat Goitia abeslari eta gitarra-jotzaileak aurkeztu du ALEA FM saioan.

**Aurreko lanetik jauzi bat izan dela aipatu duzue.**

Denborak berak jauziak egitera eramaten zaitu, eta kasu honetan soinuaren eta gure arteko banda izaera hortan ere eman dugu beste jauzi bat, eta nik uste soinuaren behintzat nabaritzen dela.

**Soinuaren AEBetatik Ingalaterrara eman duzue jauzi hori.**

Bai, hasierako soinuaren helburuetako bat beharbada ikutu ilunago, ingelesago batzuk lortzea zen, eta beste bide batzuetatik joan zen. Eta bigarren honetan uste dugu lortu dugula buruan genuen hori, eta Ingalaterrara hurbildu gara pixka bat.



'Geruzak' lana. MONTAUK.

## Zein baliabiderek oraingoan?

Nobedade nagusia sintetizadoreak eta programazio elektronikoa izan da. Elektronikarekin jolasten hasi gara, betiere kantuaren mesedetan, eta hori izan da iluntasun hori eta geruza guzti horiek ekarri dizkiguna.

**Gorka Erostarbek honakoa dio Berrian 'Itzali da Berlin' kantaren inguruan: "Ez dago haren burbuila magnetikotik libra daitekeen belarridunik...". Nolako harrera izan du diskoak?**

Egia esan, pixka bat harrিতa gaude emaitzarekin, eta harrera

oso positiboa izaten ari da. Jendeak deskubritu du guk buruan genuen hori islatu dugula ere, eta errazago ikusi da. Oso pozik gaude emaitzarekin; teknikari berriekin egin dugu apustua, Jimmy Jazzen, Sagasoundeko lagunekin, eta asmatu dugu gure ideia hori gauzatzeko orduan haiekin.

**Letrek garrantzia handia dute Montauken, eta oraingoan ere hala izan da, ezta?**

Bai. Askotan aipatu dugu rock literario modukoa egiten dugula; narratibitate ikutua duten istorio, kantu, nahasketa dira, eta kantatzeko eran ere badago errexitazio, xuxurla ikutu bat. Eta horrekin guztiarekin hitzei eman nahi zaie uste dugun edo merezi duten pisu hori.

**Nolakoa izaten da sortze-prozesua Montauken?**

Bakardadetik sortzen ditut nik kantuak. Normalean lehenengo musika izaten da, eta gero hitza gehitzen zaio musikari; baina beti kantua lehenengo buruan sortzen da, eta gero eramaten da musika eta hitzetara. Gero bandarekin lantzen dugu,





Montauk taldeko kideak; Gorka Etxebarria, Beñat Goitia, Aitor Garcia de Bikuña eta Urko Urzelai. MONTAUK

gorpuzten dugu lokalean eta hori da emaitza. Askotarikoak izaten dira lehendabiziko inspirazio iturri horiek; askotan beste kantu batzuk entzunda, horietatik abiatzen da ideia, beste batzuetan irudien bitartez edo gauzak irakurrita... bat-batean ideia sortzen da, eta gero garapen hori, behin ideia sortuta, bakarrik dator.

**Musikarien arteko elkarlanak ere badu garrantzia Montaukentzat, ezta? Lan honetan Libe eta Jon Basaguren aritu dira, besteak beste...**

Erraia diskoetxearekin argitaratu dugu lan hau, eta bertan Izaki Gardenak, Joseba B. Lenoir eta Montauk gaude, hirurok. Izaki Gardenak taldearekin lotura polit bat sortu da honetan, eta uste genuen Jonek eta Libek parte hartzea bazuela bere zentzua; uste dut Liberen ahotsak, adibidez, puntu potente bat eman diola diskoari.

**Erraia diskoetxea sortzeko garaian, zein behar zenuten? Elkartzeko beharra, lanen promoziorako...?**

Hiruak autoekoizpen egoera horretan geunden, eta hiruak hiri berdinean bizi gara, hizkuntza berdinean kantatzen dugu, eta badaude beste hainbat antzekotasun... Lagun arteko giro batetik, beharrak eraginik sortutako ideia bat da, elkar laguntzeko eta elkar argitara emateko, mundu honek dauzkan kontu zailei aurre egiteko bide bat da. Estiloa aldetik badaude antzekotasunak, badaago ildo komun bat, nahiz eta gero, entzun daitekeen moduan, bakoitzak bere bidea jarraitzen duen.

**Eneko Ugarte arduratu da lan honetako ilustrazioez...**

Bai, artista gasteiztarra da Eneko, eta hark egin du arte lan gutzia Geruzak disko honetan. Oleoak egiten ditu berak, eta

kantu bakoitzari ilustrazio bat eskaini dio.

**Garrantzia berezia ematen diozue horri, ezta? Ilustrazioak, letrak hizkuntza desberdinetan...**

Bai. Gaur egun, diskoa saltzerako orduan, eskulan hori zaindu eta bermatu egin behar da, arteak baduelako bere balioa disko fisikoa erosterako orduan, eta osotasun guzti hori beste arte disziplina horretara eraman dugu, osotasuna bilatzeko asmoz.

**Lan berria ezagutzera emateko aurkezpenak izango dira laster.**

Lehenengo Durangoko azokan egongo gara diskoa aurkezten, abenduaren 6an, eta gero Gasteizen, Oihaneder Euskararen Etxean, abenduaren 23an aurkeztuko dugu; ziur aski formatu berezi bateko kontzertu bat izango da etxean emango duguna. Ostean, beste emanaldi batzuk etorriko dira eta iragarriko ditugu: Urretxun, Oñatin... ■■■

# Gozoki bat eskuan

NUTRIZIOA



**NAGORE ENCISO**

NUTRIZIONISTA

**L**uze eman dugu diabetesarekin. Proteina eta gantzei tartea eman diegu, eta umeei atal osoa eskaini diegu. Bada, zahartzaroak gurean ere bere tokia izan beharko du.

Zahartzaroan, bizitzaren beste arloetan bezala, gure gorputzak aldaera batzuk izaten ditu. Umeak garenean dena garatzen den bitartean, zahartzaroan funtzioak aldatu egiten dira. Hala nola, garunaren funtzioak eta honekin batera gure pertzepzio fisiko zein psikologikoak. Gaurkoan, era laburrean bada ere, pertzepzio fisikoei ekingo diegu.

Lehenik eta behin, eta behar bada arazo gehien eman dezakeena, egarriaren sentsazioa gutxitzearena da. Pertsona nagusietan sarri ematen da deshidratazioaren arazoa. Alde batetik, gerru ihesari beldurrez ur zein beste likido batzuk edateari uzten zaio; eta, aipatu bezala, egarriaren pertzepzioa asko jaisten da. Ondorioz, beldurra dela, egarri falta dela, pertsona nagusiek ez dute behar beste



PIXABAY

likido edaten. Eta honi gehitu behar zaio bizitzaren une honetan gure likido beharrak gora egiten duela, besteak beste, metabolismo prozesuak errazago ematea laguntzen duelako.

**PROTEINAK  
ZAHARTZAROAN  
FUNTSEZKOAK DIRA  
MUSKULUEN TONUA  
MANTENTZEKO**

Zaporeen pertzepzioa ere aldatu egiten da. Dastamen-papilen zapore atalasea aldatu eta zaporeekiko sentikortasunak behera egiten du. Azukrearekin, adibidez, kantitate gehiago beharko da gozotasun maila berdina dastatzeko. Horrexegatik, orokorrean zahartzaroan jaki goxoak jateko grina piztu egiten zaigu. Amona-aitonekin gogoratzean, zeini ez zaio burura etortzen poltsikoko gozoki urtu horiek. Eta gauza bera jaki gaziekin, gatz kantitate gehiago behar izaten da gustuko dugun gazitasun puntua lortu ahal izateko.

Zuntza eta proteinak ere funtsezkoak dira. Digestio aparatua mugikortasunak behera egin, eta ondorioz, zuntz beharrak gora. Proteinak, berriz, muskuluen tonua mantentzeko ezinbestekoak dira, gihar-zuntzen endekatze prozesua azkarragoa baita.

Zahartzaroan ere gure burua zaindu behar dugu. Oraindik zaintzak behar ez ditugunok urteetan ondoan izan ditugunei arreta eman, zaindu eta elkarrekin gozatu. ■■■



**Parral**  
taberna

**menu begetarianoa eta gosariak  
asteaz zehar - asteburuetan raziok  
asteartero aktuzio kulturalak**

PARRALTABERNA@GMAIL.COM SAN FRANCISCO XABIER KANTOIA 4 TLF 945276833 GASTEIZ-ARABAKI

# Zuntza

DISEINUA



**MADDALEN AGIRRE LOINAZ**

DISEINATZAILEA

**J**antzi bat kalitatezkoa izan ala ez, neurri handi batean, materialaren araberakoa da. Eta arroparen jasangarritasunari so egiterakoan, oihala izango da neurgailu garrantzitsuenak. Pieza bakoitzaren iraunkortasuna neurtzeko, ekoizpenean zehar eta zaborretara botatzerakoan lagatzen duen aztarna hartzen da kontuan, batik bat. Horretarako, produkzioaren hainbat parametrotan jartzen da arreta: energia, ur eta kimikoen erabilera, eta sortutako hondakinak, besteak beste.

Gaur egun oihala jasangarriagoen hamaika adibide interesgarri eta berritzaile daude merkatuan. Naturalak eta artifizialak. Ohikoak, birziklatuak eta originalak.

Poliesterra da modaren industrian gehien erabiltzen den materiala. Ez da harriztekoa, beraz, proposamen berrien artean poliester birziklatua izatea izarretako bat; erabilitako oihalekin edota plastikozko botilekin egin daiteke hau.

Lyocell-a beste ehun arrakastatsuenetako bat da. Ohiko oihala artifizialen aldean, baliabide gutxiago behar ditu ekoizpenean, eta guztiz biodegradagarria da. Suabe eta arina da, merkatuan geroz eta gehiago erabiltzen dena.



M. AGIRRE

Zuntz naturalak, ordea, organikoak izanik, biodegradagarriak dira berez, baina ez dira ekologikoenak halaberrez. Ohiko kotoia sortzeko prozesuan, esaterako, ur eta kimiko kantitate ikaragarri handia behar da. Organikoak, berriz, landatze prozesu errespetuzkoagoa bermatzen du.

Badira betidanik nahiko berdeak izan diren ehun

**BADUGU NON IKERTU  
ETA PROBATU.  
HAMAIKA OIHAL GOXO,  
FRESCO ZEIN BERDE  
DUGU AUKERAN**

naturalak: lihoa eta kalamua. Berritzaileen artean asuna, bananondoa edo koko azalarekin egindakoak daude. Azken hau, mendiko eta kirol-arropa egiteko aproposa.

Narruaren ordezko material begano zein bitxiak ere topa ditzakegu ehun berrien artean. Piñatex-a, adibidez, ananaren zuntzen bitartez sortutakoa da. Beganoa izateaz gain, ohiko sasi-narruak baino jasangarriagoa da.

Zalantzarik gabe, bada non ikertu eta probatu. Hamaika oihala goxo, fresko, atsegin zein berde ditugu aukeran. Eta hauetako asko, gure hirian bertan topa ditzakegu. Etiketak begiratu eta galdetzearekin has gaitzke. ■

# Hiru dorrek markatuta

GURE BAZTERRAK



## Baranbio

**Kuadrilla:** Aiaraldea.

**Udalerrria:** Amurrio.

**Biztanleak:** 136 (2017ko Eustaten datuen arabera).

**Bitxikeria:** Jose Tomas Uruñuela konpositorea eta dantza irakaslea Baranbion bizi izan zen hamar urtez; plaka batek gogoratzen du.

**ARGAZKIA:** PHOT.OK

**TESTUA:** ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Araba eta Bizkaia arteko igarobide estrategikoa izan da egun errepidearen alde banatan kokatuta dagoen herria. Iraganaren lekuko dira garaiko Errege Bidea kontrolatzeko jauntxoek eraiki zituzten hiru dorre: Zubiate, Ziorraga eta Jauregia. Gordetzen den bakarra Jauregia dorrea da, egun erortzeko arriskuan baldin badago ere. Ugarte familia boteretsuaren bizitokia izan zen, XVIII. mendean, eta ondoren Lekanda eta Arriaga familien etxea bilakatu zen. Ondean, burdinola garrantzitsu bat zegoen, Altube eta Berganza ibaien artean, eta hainbat irin-errota herrian.

Aipatzekoak dira, bestalde, Baranbioko auzoetan aurkitu daitezkeen baserri ikusgarriak: Jauregia dorrearen ondoan, esate baterako, El Torre izeneko baserria dago; Astobiza auzoan, berriz, Egiluz eta Miguel

Anton baserriak; eta San Anton auzoan, Txape eta Lazkano-Zahar baserriak. Dena dela, Baranbioko baserri interesgarrienak Zandikualde auzoko Marabiaga eta ikertzaile askoren interesa piztu duen Presabarri etxeak dira.

Arkitekturaren gordeleku izateaz gainera, Baranbio ezaguna da, baita ere, ehunka urtetako tradi-

zioen eta kondairen babeslekua delako.

Hala, urtero, *Pospoloaren enkantea* izeneko ohitura ospatzen dute herritarrek San Anton jaiaren bueltan. Pospolo baten argipean txerriaren okelagatik eta ardoagatik euren eskaintzak egiten dituzte, San Anton basilizan. Enkanteak 300 urteko historia du dagoeneko.

Kondairen atalean bada lamien inguruko bat ere, nola bestela.

Berganza auzoan, Lamien Koba izeneko bat dago, eta herritarren esanetan hiru lamia bizi dira bertan. Beste kondaira batean jasotzen dutenez, aspaldi, Zuiaiko eta Baranbioko herritarren eta artzainen artean mugarriak zirela eta ez zirela sortzen ziren liskar eta eztabidak konpontzeko, oilarrak eta korrikalariak jarri zituzten lehiazten. Konponbidearen protagonisten inguruan gehiago jakin nahi izanez gero, onena litzateke Zuiara edo Baranbiora gerturatzea.



**ZURE ARABAKO TXOKO KUTUNAREN BERRI EMAN NAHI BADUZU, IDATZI PROPOSAMENA:** [erredakzioa@alea.eus](mailto:erredakzioa@alea.eus)

# Irakurleen txokoa

ZOZKETAK

**Irabazleak:**

**Antzerkirako sarrera:** Egoitz Tolosa (Gasteiz).



## Oparia harpidedunentzat

Artepanek argitaratutako 'Ñam' errezeta liburua, ALEAko harpidedun guztiek doan jaso dezakete gure bulegoan:

**Eskola kalea 10, 7. bulegoa.**

**Ordutegia: 9:00 - 18:00**



## Errigorako saskia

Abenduaren 11ra bitartean harpidetza egiten duten edota harpidedun berri bat lortzen dutenen artean, Errigorako saski eder bat zozketatuko da, Erriberak emandako produktuekin gozatzeko.

PARTE HARTU: [www.alea.eus/zozketak](http://www.alea.eus/zozketak)



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).



Telefonoz:  
**945 71 60 09**  
On-line:  
**[alea.eus/harpidetzak](http://alea.eus/harpidetzak)**  
E-mailez:  
**[harpidetza@alea.eus](mailto:harpidetza@alea.eus)**

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: [harpidetza@alea.eus](mailto:harpidetza@alea.eus)

# AGENDA Azaroaren 16tik 22ra

## Euskararen agenda

### MUSIKA

#### LAUDIO Akerbeltz

Larunbata 17, 23:30ean, *Sorgin tabernan.*

#### GASTEIZ Eneritz Furiyak

Akustika zikloaren barruan.  
*Igandea 18, 19:30ean, Luis Aranburu musika eskolan.*

#### GASTEIZ Lenao

*Astearte 20, 20:30ean, Parral tabernan.*

### BERTSOLARITZA

#### KORRES Bertxoko sariketa

Bigarren kanporaketa. Unai Anda, Ainhoa Comas, Aitor Ugarte eta Markel Yoyerrekin.  
*Ostirala 16, 19:30ean, tabernan.*

#### ARAMAIO Bertso afaria

Manex Agirre eta Xabi Igoarekin.  
*Larunbata 17, 21:00etan, Zalgo auzoko jaietan.*

#### GASTEIZ Lagun artekoa

Paula Amilburu eta Iñaki Viñaspre bertsolariekin.  
*Larunbata 17, 21:30ean, Foronda Berria tabernan.*

### DANTZA

#### LAUDIO Korrontzi taldearen ikuskizuna

Itxarkundia taldearekin batera.  
*Larunbata 17, 19:00etan, kiroldegian.*



ALEA

#### GASTEIZ 'Otsoa galzorian?' hitzaldia

Natur Zientzien III. Topaketaren barruan. Haritzalde elkartearen eskutik.  
*Larunbata 17, 18:00etan, Ataria gunean.*

### ANTZERKIA

#### GASTEIZ OFF Lokal

Azken Principal Dantza eta Irmo.  
*Igandea, astelehena eta astearte, 20:00etan, Principal antzokian.*

### HAURRAK

#### GASTEIZ 'Lorenzoren ontzia'

Desberdintasunei buruz hitz egiteko ipuina. 3-10 urte bitartean.  
*Ostirala 16, 17:30ean, Hegoalden.*

#### LAUDIO 'Maripuzker edo Kandela?' ipuina

Raul de La Cruzen eskutik. 3 urtetik gorako haurrentzat.  
*Ostirala 16, 18:00etan, liburutegian.*

#### AGURAIN 'Noa Uy Uy Uy'

Toparte txotxongilo jaialdiaren barruan. Panta Rhei taldearekin.  
*Larunbata 17, 18:00etan, Harresin.*

#### GASTEIZ 'Egur taupadak' ikuskizuna

Ttipia-ren eskutik. Familientzako ikuskizuna.  
*Larunbata 17, 18:00etan, Iparralde gizarte etxean.*

### HITZALDIA

#### GASTEIZ 'Bertsolaritza eta feminismoa'

Miren Amuriza eta Oihana Bartra bertsolarien eskutik.  
*Astearte 20, 19:00etan, Aldabe gizarte etxean.*

#### GASTEIZ 'Nola biziko dugu Euskaraldia?'

Lutxo Egia, Ainhoa Arbaiza eta Izarne Zelaia izango dira hizlari. Bilbo, Donostia eta Aguraingo esperientzien berri emango dute.  
*Asteazkena 21, 18:00etan, Betolatza aretoan.*



TARA

### **GASTEIZ Tara eta Lumi**

Muinoko Hotsak zikloaren barruan.  
*Ostirala 16, 21:00etan, gaztetxean.*

### **IKUS-ENTZUN**

#### **GASTEIZ 'Kalebegiak' pelikula**

Zinexpress zikloaren barruan. Hamabi film laburrek osatzen dute.  
*Ostirala 16, 18:30ean, Montehermoso kulturunean.*

### **BESTELAKOAK**

#### **GASTEIZ GEUrekin mendira**

Mendi ibilaldia, Andartora.  
*Igandea 18, 08:30ean, Mendizorrotzako aparkalekutik abiatuta.*

### **Beste batzuk**

### **MUSIKA**

#### **GASTEIZ Freedomia**

*Ostirala 16, 22:00etan, Jimmy Jazz aretoan.*

### **ANTZERKIA**

#### **GASTEIZ 'Espía a una mujer que se mata'**

Daniel Veronesek zuzenduta.  
*Larunbata 17, 20:30ean, Principal antzokian.*

#### **DULANTZI 'Bernarda 5.0'**

Siroka taldearen eskutik. Antzerki Amateurreko Jaialdiaren barruan.  
*Igandea 18, 19:30ean, antzokian.*

### **BESTELAKOAK**

#### **LAUDIO 'Él nunca me pegó' dokumentala**

Dokumentalaren ondoren solasaldia izango da Irantzu Varela ekintzaile feministarekin.  
*Astelehena 19, 19:00etan, Casinoan.*

#### **GASTEIZ 'El Coliseo de Roma'**

Eva Tobalina EHuko Historia irakaslearen eskutik.  
*Asteazkena 21, 19:00etan, Luis de Ajuria aretoan.*

#### **GASTEIZ Dorian**

*Larunbata 17, 22:00etan, J. Jazzen.*

#### **GASTEIZ Melisma Saxophone Quartet**

*Asteartea 20, 20:00etan, Vital Fundazioaren aretoan.*

# EUSKARALDIA Gasteiz

11 EGUN EUSKARAZ,  
egingo al dugu proba?

EUSKARAK  
**365**  
EGUN

Euskaraz hitz egiten badakizu? Euskaraz hitz egiteko gaitasunik eduki ez arren,  
zerbait uler dezakezu? Konturatu al zara, orduan, elkarrekin euskaraz egin  
dezakegula? 11 egun euskaraz, egingo al dugu proba?



**PARTE HARTU**  
azaroaren 23tik abenduaren 3ra

Eman izena > gizarte etxeetan / Oihaneder / [euskaraldia.eus](http://euskaraldia.eus)